

## LETE

Zeinek esan behar zigun guri, Lete  
trumoia bezala ibiltzen hintzen hori,  
dena bizar kizkur eta ile kalpar  
eta oihuka, Txano Gorritxori deika  
benetako Otsoa uh uh uh uh uh  
hik herorrek ematen huela...  
zeinek esan behar zigun hari bat,  
urrezko hari bat zela hire muin,  
armiarma sareetakoa bezain mehe,  
eta hari horrekin, urregin batek bezala,  
urreginaren esku eta gai aldi berean,  
hire heriotzarako azken 5.000 egunak  
josi behar hituela poliki-poliki  
harik eta dena amaitu arte.  
Lore artean ikusi hindugun etzanda.  
*In manos tuas, Domine.*

Lore artean hengoan etzanda  
leiho handiko gelatxo batean,  
eta inguruan adiskideak,  
batzuetan urduri barrezka.  
Gizon gazte bat, xuxurlaka,  
hire liburu bat irakurtzen ari zuan  
otoitzean bezala.  
Neska batek, hirekin behin  
Alkizako errepidean egokitu  
eta Heriotzaz hitz egin zuenak  
hala nola baserritar batek  
beste baserritar batekin  
eguraldiaz edo azokan ikusitakoaz;  
neska hark, Lete, negar egiten zian hiregatik,  
eta beragatik, eta denongatik.

Joan egin ninduan  
jende artetik kale bakartira:  
neguko arrats isilean  
uhuriak sentitu nizkian,  
uhurika ari zuan otso bat  
uh uh uh uh mendian.

Joan ninduan mendira,  
sartu ninduan basora,  
Otsoa hizketan hasi zuan:  
“Zertan da Xabier Lete lehena?”  
Lore artean etzanda hengoela  
esan nioan, 5.000 egunen buruan  
bake-bakean ematen huela.  
Eta urregina ere aipatu nian,  
5.000 egun haien urreez  
argitasun bat sortu zela aretoan.  
“Eta jenderik izan al du?”  
galdetu zian uh uh uh Otsoak.  
“Aretoa beteta zegoan”, erantzun nioan.  
“Inor mozkortu al da?”, berak.  
Eta ezezkoa eman nionean:  
“Xabier Lete Lehenak ez dik beraz  
ardotan gastatu nahi izan!”  
Eta jarraitu zian Otsoak, hasperen eginez:  
“Errebindikatu al du inork ezer?  
Baliatu al da inor aukeraz,  
demagun, euskararen ofizialtasuna  
Obanosen edo Zangozan eskatzeko?”  
Zer esan ez nekiela gelditu ninduan.  
Otsoak uh uh uh barre algara egin zian.  
“Zein haiz hi, ordea?”, galdetu nioan.  
Eta berak, “Ni? Xabier Lete Bigarrena!”

Astebete geroago han ninduan oster, a,  
mendian, basoan, Otsoarekin.  
Esan nahi baita Xabier Lete Bigarrenarekin.

Hire heriotzaren inguruko mezak,  
hitzaldiak, artikuluak aipatu nizkioan,  
eta hire zenbat kanta jarri zituzten irratian.  
Bera ere kantari hasi zuan orduan,  
trumoi ahotsez, dena bizar eta ile kalpar:  
“Etxetikan lanera noa nahiko mantso,  
Realak cuatro uno galdu zuen atzo”.  
“Ba, jakin ezak –moztu nioan–  
Realaren partiduan minutuko isilaldia  
egin zutela Xabier Lete Lehenaren omenez.”  
Eta esan zian berak: “Ba, jakin izatera,  
Uh uh uh uh, irabazle jarriko nian,  
Realak cuatro uno irabazi zuen atzo,  
eta hor konpon neurriak eta neurri-ondoak”.  
Konturatu ninduan orduan Otsoa eta hi,  
5.000 egun urrezko hariz jositakoa,  
bat zinetela, auskalo nola.

*In manos tuas, Domine,*  
zure eskuetan, Jauna...  
Mikel Laboa gogoan hartu  
eta hire azken liburuko  
187. orrialdeko poeman  
*in manos tuas, Domine* irakurtzean,  
hunkitu egin hintzen, Lete.  
Eta ulertzen haugu,  
nola ez haugu ba ulertuko?  
Gu bezalakoak, herri ttikietako umeak,  
idiak beren gurdiekin kale nagusitik  
pasatzen ziren garaian jaioak,  
behiei begira egoten ginenak  
hiltegiara zeramatzatenean  
soka batez lotuta kale nagusi beretik,  
eta haiek harri pinporrean utzitako pustiletan  
txorientzako zepoak jartzen genituenak,  
guk, gu bezalakoek, herri ttikietako umeek,  
bihotzean itsatsita zeramaagu Beste Leku hura,  
harrizko murru sendoek babeste zutena,

non nahasten ziren intsentsuaren eta ezkoaren  
usainak, eta batzuetan baita arrosarena ere;  
non ontziak urrezkoak ziren, non hizkuntza  
Virgiliorenaren berbera zen, *in manos tuas, Domine...*  
Nola ez haugu ba ulertuko?

Beste Leku horretan nahi izan huen  
hire 5.000 egunetako azken jostura egin,  
eta zer poza izango zen hiretzat,  
egia bada hik herorrek  
Xabier Lete Lehen horrek  
sinisten huena,  
zer poza izango zen hiretzat  
dena lorez inguratua egotea,  
eta soinujolea doi-doi jotzen,  
eta urrezko hari bat airean:  
“Izotz-ondoko eguzki,  
Neguaren barre...”.  
Ulertzen haugu. Nola ez, ba?  
Baina hik ere ulertu beharko duk,  
eta ez bakarrik otsailean ari naizelako,  
Otsoaren alde jartzea,  
eta egloga bat bezala hasi den gorazarre hau,  
“Zeinek esan behar zigun guri...”,  
demanda bat bezala bukatzea:  
Gure artean bizi behar baduk  
ez hadi izan bakarrik  
Xabier Lete Lehen;  
egunak zeuzkaagu aurrean,  
100, 500 edo 20.000,  
denak bizi beharrekoak,  
eta bizitzeko uh uh uh uh  
Otsoa ere behar diagu;  
behar diagu Xabier Lete Bigarrena,  
Lehenarekin bat zena, auskalo nola.

B A